

DEBA

EH Bildurentzat «gehiegizkoa» da ordenantza fiskaletarako onartutako igoera

J. L.

DEBA. Debako Udalbatzarrak 2025erako Ordenanza Fiskaletarik onartu zituen joan den asteko Osoko Bilkuran. Udal Gobernua osatzen duten EAJ eta Orain Deba alderdien ordezkariek alde bozkatu zuten eta EH Bilduko zinegotziek aurka.

Koalizioa ados agertu zen hondakinen tasa %8,5 igotzearekin: «Orain arte Mankomunitateak aurreikusten duen aurrekontu proposamenaren araberako igoera aplikatu izan da eta aurtentere proposamen bera egin da arlo honetan». Beraz, EH Bildu tasa horren igoerarekin ados dago «nahiz eta, Mankomunitateko arduradunekin izan genuen bileran ai-patu genuen bezala, herritarrekin eta Mankomunitateko teknikariekin batera lanketa sakona egiteko beharra dagoen, hondakinen sailkapena behar bezala egin eta errefusa gutxiago sortzeko, horrek eragiten baitu igoerarik nabarmenena».

Gainontzeko zerga eta tasei dagokienez, %5eko igoera orokorra onartu zuen udal gobernuak eta hori «gehiegizkoa» iruditu zaio EH Bilduri. Gainera, koalizioak azpimarratzen du «%5a zergetan bai, baina zenbait tasetan %20, %25, %50 edota %100eko igoerak» izango direla. Adibide gisa, ondorenko kasuak azaltzen ditu: «TAOKO gune batzuetan %25-50ko igoera aplikatuko da, bertako txartela 5 eurotik 10 eurosora pasako da, Itziarko frontoiko tasetan %80ko igoera aplikatuko da, hondartzako kabinetakoak %25-33 artean igoko dira, uda kirolekoak %12,5...».

Gauzak horrela, EH Bilduri 2025eko ordenanza fiskaletan %5eko igoera orokorra aplikatuko dela esatea ez zaio oso gardena eta zintzoa iruditzen, «zenbait tasetan igoera askoz ere handiagoa delako».

EH Bilduren proposamena

Onartu ez bazuten ere, EH Bilduk bi proposamen zehatz egin zizkien udal gobernuko taldeei ordenanza fiskalen inguruan eztabaidatzeko bileran: «batek, %3,6ko igoera orokorra aplikatzea eta IBIan etxebizitzak hutsei erre kargua %75etik %100era igotzea».

Koalizioaren ustetan, «modu horretan, diru sarreretan igoera orokorraren bi proposamen artean (%3,6tik %5era) da-goen differentzia, 35.000-40.000 euro inguru, konpentsatuta geratuko litzateke».

ELGOIBAR

La mejora de la vieja carretera de Azkarate se ejecutará en 2025

La Diputación habilita una partida de 300.000 euros para la ejecución del proyecto, que ya está en fase de redacción

JABI LEON

ELGOIBAR. La Diputación Foral de Gipuzkoa acometerá el próximo año el esperado proyecto para la mejora de la GI-3321, la vieja carretera que conecta el casco urbano de Elgoibar con el alto de Azkarate. La entidad territorial considera «prioritaria» dicha intervención, por lo que ha habilitado en los presupuestos forales del 2025 una partida de 300.000 euros «para ejecutar los trabajos de reparación y mantenimiento necesarios en esta vía».

De hecho, el proyecto para la mejora de la vieja carretera de

Azkarate ya se encuentra en fase de redacción y se prevé que las obras salgan a licitación «en el mes de enero» para empezar a ejecutarse «en mayo del 2025», explican desde el Gobierno Municipal de Elgoibar, que a lo largo del último año ha mantenido diversas reuniones con la Diputación para abordar esta situación.

Según explican desde el Consistorio elgoibartarra, la renovación del firme de la GI-3321 requiere de tres trabajos previos de estabilización: «en el punto kilométrico 3,100 se instalará una pantalla de micropilotes de 50 metros de longitud; para reparar el hundimiento existente en el punto kilométrico 2,100 se mejorará el drenaje para la extracción de aguas, se fresará el pavimento existente y se instalará un nuevo firme; y el tramo situado en torno al punto kilométrico 0,570 se esta-

bilizará mediante la instalación de vigas estructurales».

Una vez completadas las citadas labores de estabilización, se procederá a rehabilitar el firme en el verano de 2025. Esto incluirá la renovación del suelo en los puntos deteriorados y la aplicación de una nueva capa de rodadura mediante microaglomerado a lo largo de toda la longitud.

La alcaldesa de Elgoibar, Maialen Gurrutxaga, subraya su comprensión hacia las personas usuarias de esta carretera: «Nosotros también hemos visto que es una necesidad y llevamos tiempo trabajando con la Diputación para que las obras de mejora se hagan lo antes posible», explica.

El Consistorio y la Diputación se comprometen a reunirse con las personas residentes en la zona «para trabajar en el proyecto y aclarar la información necesaria».



Un vehículo circula por uno de los tramos en mal estado de la carretera GI-3321. J. LEON

MUTRIKU

Akelarre taldeak etzi irekiko du abenduaren 14ra arte luzatuko den Antzerkiaz Blai! zikloa

J. LEON

MUTRIKU. Udalak antzerkizaleta-suna sustatzeko urtero antolatzen duen 'Antzerkiaz Blai!' zikloaren edizio berri batekin disfrutatzeko aukera izango da datozen asteoan. Aurtengoan bost saio izango dira Zabiel kultur etxearen eta de-nak 18.00etan hasiko dira.

Egitarauari dagokionez, Mutrikuko Akelarre antzerki konpai-

niak izango du aurtengo zikloa irekitzeko eta izteko ardura.

Hasteko, herriko taldeak 'Arratsaldeko seiaretan', 'Doktoreak, gure alabak senda ditzakezue?' eta 'Roboten denda' ikuszkizunak tauratuko ditu datorren larunbatean (sarrera doanik da).

Bigarren saioa azaroaren 17an izango da ikusgai. Egun horretan Anita Maravillas antzezleak 'Andereño' haurrentzako ikuszkizuna

aurkeztuko du (sarreren prezioa 3 eurokoa da).

Hurrengo hitzordua azaroaren 24an izango da, Tartean konpai-niaren eta Patxo Telleria aktore ezagunaren eskutik ikusgai izango den 'Ai gure juaneteak' obra-rekin (3 euro).

Horren ondoren, Olatz Beobide, Maitane Perez eta Nerea Arriola antzezleek 'Olagarrua' ikuszkizuna aurkeztuko dute abenduaren 1ean (3 euro); eta azkenik, Akelarre taldeak 'Eufrosina Aztia', 'Ileapaindegia' eta 'Azken entsegu' obrak tauratuko ditu abenduaren 14an (doanik).

Sarrerak gauntik aurrera eros daitezke Turismo Bulegoan eta mutriku.eus webguneararen bidez.

SORALUZE

'Teilitupean' haurrentzako bertso-antzerki ikuskizuna izango da igandean

J. L.

SORALUZE. Soraluzeko Udalak antolatutako Antzerki Garaia zikloak datorren igandean izango du jarraipena, Lanku konpainiak tauratuko duen 'Teilitupean' bertso-antzerki ikuskizunarekin.

Emanaldi hau 5 urtetik go-rako haurrei eta familiei zuenduta dago eta bertan «adiskidetasuna, zaintza, etxebizitzaren arazoa, migrazioa, marjina-zioa, duntasuna edota familia ereduen aniztasuna» bezalako gaiajorratzen dira.

'Teilitupean' antzeziana 17:00etan hasiko da Herri Antzokian eta bertaratzenko interesa duten guztiak aurrez eros ditzakete sarrerak (3 eurotan), Interneteko bibe me atariaren bitarte edo Udal Liburutegian (gaur 11:00etik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era bitartean eta bihar 16:00etik 18:00etara bitartean). Sarrerak agortzen ez badira igandean erosia ahalko dira Antzokiko leihatilan, 16.30etik aurrera.

EN BREVE

DEBA

Piden materiales concretos para los afectados por la DANA

Teniendo en cuenta todo lo que se está recogiendo, la asociación Arbil y el Consistorio de Deba piden a la ciudadanía que aporte los siguientes materiales para enviar a las personas afectadas por la DANA en Valencia: palas planas, guantes, botas de agua, productos para la higiene femenina, detergente para ropa, jabón higiénico y comidas en conserva.

ELGOIBAR

Mañana hay una visita para ver los colores del otoño en los árboles

El colectivo Haizea y el hogar de Elgoibar animan a la ciudadanía a participar en la visita guiada que han organizado para mañana bajo el título 'Los colores del otoño en los árboles de Elgoibar'. La visita correrá a cargo de Andoni Segundo y empezará a las 10.00 horas en el hogar, donde tras unas explicaciones se iniciará un paseo por los parques y calles del casco.